

Ikus-entzunezko komunikazioa graduko ikasketak onartu dizkio Anecak Huheziri

2009/06/05

Aneca goi hezkuntzako ebaluazio agentziak onartu egin dio Huheziri **Ikus-entzunezko Komunikazioa** gradu proposamena. Anecak maiatzean jakinarazi dio Huheziri erabakia, eta, horren arabera, **Ikus-entzunezko komunikazioa titulu ofizial izango da, erabat egokituta Europaren ikasketa plan berrira**. Consejo de Universidades-en azken berrespena baino ez da falta orain, baina hori tramite hutsa baino ez litzateke izan behar.



Hortaz, datorren ikasturtean Huhezirik **hiru gradu** izango ditu, erabat ofizialak: **Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa**.

Aneca

Aneca goi hezkuntzako ebaluazio agentzia da, Espainiako Hezkuntza Ministerioak sortua, eta Madrilen dago. Une honetan **bera arduratzen da ebaluatzeaz estatu espainiarreko unibertsitateek aurkeztutako titulu ofizial berriak**. Kasu honetan, akademikoek, profesionalek eta ikasleek osatu dute Ebaluazio batzordea, denak hautatuak *Verifica* izeneko programak ezarritako irizpideen arabera.